

ALERTAK. Istripu Errepikatuak: ESTALKIETATIK ERORTZEA



Istripu mota hauek maiz errepikatzen dira, eta azken urteotan gorakada bat ikusi da, eta gehienetan LARRIAK edo MORTALAK izaten dira.

Neurri handi batean, industria-nabe hauskorren estalkietan gertatzen dira, konponketa-lanetan (baita aurretiaz aztertzen denean, itoginen konponketa txikietarako, itoginak konpontzeko edo garbitzeko ere); erabateko ordezkapenak; edo, azkenaldian, plaka fotovoltaikoak instalatzean ere bai.



IDENTIFIKATUTAKO KAUSA NAGUSIAK

- Egin beharreko lanen alde aurreko **AZTERKETARIK ETA PLANGINTZARIK EZA**, lan-eremurako **SARBIDE SEGURURIK EZA** barne.
- Arriskuen ebaluaziorik eza, obraren prebentzio-kudeaketarako dokumentua edo segurtasun- eta osasun-plana edo horiek betetzen direla **EZ KONTROLATZEA EZTA ZAINZTEA ERE**.
- **UNEAN UNEKO LANAK EGITEA BEHARREZKO SEGURTASUN-NEURRIAK HARTU GABE**: aurretiazko balorazio- edo neurketa-lanak, aurreikusi gabeko lanak, esleitu gabeko zereginak, etab.
- Enpresak eskura jarritako **NBEak EZ ERABILTZEA** edo **EGOERA TXARREAN** egotea (bizi-lerroak, erorketen aurkako sistemak...)
- **BABESIK GABEKO ZULOAK** egotea; forjatuaren azpian sareak jartzea, barandak jartzea, hutsune bertikalak babestea, argi-zuloak, etab.
- **LAN-EREMUA** eta horren arriskuak **BEHAR BEZALA EZ MUGATZEA ETA SEINALEZTATZEA**.
- Lanak egiteko **PRESTAKUNTZA/ INFORMAZIOA** ez nahikoa edo desegokia.



PREBENTZIO-NEURRIAK

- Egin aurretik, lanak **AZERTU ETA PLANIFIKATZEA**. Era berean, lan-eremurako **SARBIDE SEGURUA** aurreikustea.
- Lanak hasi aurretik arriskuen ebaluazioa, obraren prebentzio-kudeaketarako dokumentua edo segurtasun- eta osasun-plana **EGITEA**, eta dokumentu horietan jasotako prebentzio-neurriak betetzen direla **KONTROLATZEA ETA ZAINZTEA**.
- Inolako zereginik **EZ EGITEA**, alde aurreko neurketa-lanik, aurreikusi gabeko lan puntualik, etab., beharrezko **PREBENTZIO NEURRIK GABE**.
- Eskura jarritako **NBEak ERABILTZEA**. Egoera onean egon behar dute.
- **ZULO GUZTIAK BABESTEA**, perimetroko barandak, forjatupeko sareak, hutsune bertikalen edo argizuloen babesa eta abar erabiliz.
- Lan-eremua eta horren arriskuak **MUGATZEA ETA SEINALEZTATZEA**.
- Egin beharreko lanetarako **PRESTAKUNTZA/INFORMAZIO** egokia ezinbestekoa da.

